



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **GURASOEN PARTE-HARTZEA ESKOLAN**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Andrés Arizmendi, Zuriñe.

ZUZENDARIA: Antonio Agirre, Iratxe.

**2018-2019**



## LABURPENA

Gaur egun familiak eta eskolak ezinbestekoak dira gizabanakoaren heziketan, formakuntzan eta garapenean. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honek gurasoek zer-nolako parte-hartzea daukaten eskolan aztertzea du helburu. Hasteko, marko teorikoa garatzen hasten da bibliografia zabal bat erabiliz, non familia eta eskolaren inguruko informazioa ezagutzeko aukera dagoen; esate baterako, familien parte-hartzeak duen garrantzia, parte-hartzeko dauden bideak, etab. Jarraitzeko, Trapagarango eskolako Haur Hezkuntzako bost urteko gelako gurasoek galdetegi bat erantzun dute, non familiek eskolan duten parte-hartzearen inguruko galderak agertzen diren. Amaitzeko, behin galdetegien erantzunak izanda, emaitzak eta ondorioak atera ditut, ikastetxe honetako gurasoen parte-hartzea eta inplikazioa zein den ezagutzeko.

*Hitz-gakoak:* parte-hartzea, familia, eskola, baliabideak.

## RESUMEN

Hoy en día las familias y las escuelas son imprescindibles para la educación, la formación y el desarrollo del individuo. Por lo tanto, éste Trabajo Final de Grado tiene como objetivo examinar que clase de participación tienen los padres y madres en la escuela. Para empezar, se desarrolla un marco teórico utilizando una bibliografía muy extensa, en la cual hay posibilidad de conocer información sobre la familia y la escuela; por ejemplo, la importancia que tiene la participación de los padres, los recursos que hay para participar, etc. Para continuar, los padres de la clase de cinco años de Educación Infantil del colegio situado en el Valle de Trápaga han respondido un cuestionario, en el cual aparecen preguntas sobre la participación de las familias en la escuela. Para finalizar, una vez obtenidas las respuestas de los cuestionarios, he adquirido unos resultados y conclusiones para conocer cuál es la participación y la implicación de los padres de este colegio.

*Palabras clave:* participación, familia, escuela, recursos.

## ABSTRACT

Nowadays, families and schools are essential for education, formation and individual's development. Therefore, this end-of-degree project's aim is to examine what kind of participation parents have in the school. To begin with, a theoretical framework is developed using a very extensive bibliography, in which it is possible to get to know information about the family and the school; for example, the importance of the parental involvement, the resources available for participation, etc. To continue, parents of the five-year early childhood education class at the school in Trapaga have answered a questionnaire, in which questions about the family involvement in the school appeared. Finally, once the answers to the questionnaires were obtained, results and conclusions were drawn to analyze the participation and the parental involvement in the school.

*Keywords:* participation, family, school, resources.



## AURKIBIDEA

SARRERA .....	7
MARKO TEORIKOA .....	8
1. FAMILIA ETA ESKOLA .....	8
1.1. Familia eta eskolaren kontzeptuak.....	8
1.2. Azken urteotan jasandako aldaketak.....	9
1.3. Familia eta eskolaren arteko harremana .....	11
2. PARTE-HARTZEA .....	12
2.1. Parte-hartzearen kontzeptua.....	12
2.2. Parte-hartzeko mailak .....	13
3. FAMILIEN PARTE-HARTZEA .....	14
3.1. Familiaren parte-hartzearen garrantzia .....	14
3.2. Parte-hartzeko bideak.....	15
3.3. Parte-hartzeko zailtasunak eta oztopoak .....	17
METODOA .....	18
EMAITZAK.....	20
ONDORIOAK.....	25
ERREFERENTZIAK.....	31
ERANSKINAK.....	35



## SARRERA

Gizakia heziketa subjektua eta objektua da jaiotzen denetik eta heziketaz baliatzen da, garapen pertsonal eta sozial egoki bat izateko (Pérez de Guzmán, 2002). Beraz, esan daiteke familia eta eskola, heziketa-eragileak izanik, ezinbestekoak direla haur baten bizitzan eta heziketan, horrela adierazten baitute hainbat ikerketak (Solé, 1996).

Gradu amaierako lan honen gai nagusia familia eta eskola da; hain zuzen, gurasoen parte-hartzean eskolan oinarritzen da. Lan hau gai honi buruz egitearen arrazoia practicumetan ikusitako egoerei jarraitasuna emateko asmoa du, ezinbestekoa baita gurasoen eta irakasleen arteko lana eta harremana egokia izatea, haurren garapena eta heziketa betea izateko. Beraz, hori kontuan izanda, berebiziko garrantzia du gurasoek zer-nolako parte-hartzea daukaten eskolan aztertzea. Arrazoi horretaz gain, gaia oso interesgarria eta garrantzitsua bada irakasle izango garenontzako, ikastetxeko eguneroko jardunaren parte baita.

Etorkizuneko irakaslea izango naizen heinean, garrantzitsua da gurasoekin harremanetan egotea, baina ez bakarrik hurrek garapena hobea izateko, baizik eta hobeto ezagutzeko ere. Horrela, haien beharrak modu eraginkor batean asetzeko aukera egongo da. Gainera, arestian esan bezala, heziketa gurasoen eta irakasleen ardura da, helburu komuna haurraren garapen integrala lortzea izanik. Hori dela eta, garrantzitsua litzateke gurasoen eta irakasleen parte-hartze komuna sustatzea.

Gradu amaierako lan hau hainbat atalez osatuta dago. Alde batetik, gaiarekiko marko teorikoa zehaztuko da, bi hezkuntza-eragile hauen garrantzia ulertzeko. Lehenik eta behin, eragile bakoitzaren esanahia zein den ezagutzeko aukera dago. Horretaz aparte, gaia familia eta eskolaren parte-hartzean oinarritzen denez, horren inguruko informazioa ezagutzeko parada dago, hala nola, hitzaren esanahia, parte-hartzeko mailak, familiaren parte-hartzearen garrantzia, parte-hartzeko bideak, eta zailtasunak eta oztopoak. Beste alde batetik, metodoa aurki daiteke, ezen lanean zehar ezarritako helburuak eta hipotesiak agertzen diren. Honekin batera, ikerketan zehar parte hartu duten parte-hartzaileen datuak, erabilitako tresnak eta prozesua deskribatzen dira.

Jarraitzeko, gurasoek duten iritzia eurek eskolan duten parte-hartzearen inguruko emaitzak agertuko dira. Horiek helburuen arabera egituratuta egongo dira, planteatutako xedeak bete diren edo ez jakiteko jomugarekin.

Amaitzeko, emaitzekiko ondorio nabarmenenak azalduko dira, non lortutako emaitzak baloratuko diren, marko teorikoan agertzen den teoriarekin alderatuz. Ondorioekin batera, gradu amaierako lanean zehar izandako prozesuaren hausnarketa pertsonala agertuko da, bidean zehar izandako zailtasunak, inplikazioa, etab. azalduz.

## **MARKO TEORIKOA**

### **1. FAMILIA ETA ESKOLA**

#### **1.1. Familia eta eskolaren kontzeptuak**

Familia kontzeptuari buruz definizio andana aurki daitezke. Autoreen arabera definizioa aldatu egiten da, baina aztertzen badira, gauza bera adierazten dutela ikus daiteke. Oro har, familia erakunde konplexua eta aldakorra da; gainera, familiak banakoarengan eragin handia duen nukleo sozialetako bat sortzen du (Luengo, 2001). Izan ere, pertsonen arteko erlazioko lehen mailako erakundea da. Hortaz, familia kultura bezain zaharra izanik, inplikazio soziopolitikoak, erlijiosoak eta, batez ere, heziketazkoak ditu (Pérez de Guzmán, 2002).

Familiaren inguruan eskuragarri dauden definizio desberdinen artean, Viladrich-en (1994) arabera, familia eremu bat da, non pertsona gisa jaiotzen den, hezten den eta hiltzen den. Maestre-k (2009), ordea, esaten du familia gizakien garapenean eragin handia duen komunitatea dela, non afektibitatearen bidez, haurrari sozializatzen laguntzen dion. Bestalde, Rios-González-en (1986) ustez, familia lehen mailako giza taldea da, non banakakoak jaiotzen diren, kontaktu batzuk ezartzen dituzten, topaketa mota bat egiten duten eta giro egokia aurkitzen duten komunikazio aberasgarri eta burutua ezartzeko.

Familiak pertsonen garapenean funtsezko papera duela azpimarratzea da. Izan ere, familia da haurrari bizirik iraute fisikoa eta trebezia autonomorako oinarritzko ikasketak bermatzen dizkiona (Maestre, 2009). Honekin batera, esan beharra dago familiei behar biologikoa eta txeratsuak asetzeko rola erantsi dietela (Gallardo eta Gonzalo, 2011). Horretaz gain, familiaren eremu txeratsua lehenengo sozializazioarako maila pribilegiatua da. Hortaz, familia bitartekari bat da ingurunearekiko haurraren erlazioan, garapen pertsonal eta sozialean eragingo duen paper gakoa jokatuz (Bolívar, 2006).

Bestetik, eskolaren definizioari erreparatuz, Fernández-en (2006) arabera, eskola haurrak sartzten diren lehenengo erakunde publikoa da. Gainera, eskola da



lehenengo lekua aniztasunera hurbiltzeko gizarte osoan. Horretaz gain, eskola da lehen eskarmentua autoritate inpersonalarekin. Gauzak horrela, eskolaren xedea, familiaren osagarri bezala, bere heziketa-funtzioetan gizartean bultzatzea eta familiaren eragin positiboan laguntzea da (Pérez de Guzmán, 2002).

Denbora luzez eskola behar intelektual eta akademikoak asetzeko erakunde gisa ulertu izan da (Gallardo eta Gonzalo, 2011); hau da, eskolari ezaguera-transmisioan erantzukizun gehiago esleitu izan zaio (Pérez de Guzmán, 2002). Gaur egun, ordea, eskolei pairatu behar dituzten arazoan iturburu izatea leporatu zaie, eta honek bere funtzionamenduan atsekabeak sortarazi egiten ditu ezinbestean (Bolívar, 2006).

## **1.2. Azken urteotan jasandako aldaketak**

Historian zehar, aldaketa garrantzitsuak egon dira gure gizartean, batez ere azken hogeita hamar-berrogei urteotan. Hauek eragin zuzena izan dute familian eta eskolan, eraldaketa handiak pairatuz (Maestre, 2009). Esate baterako, txosten soziologiko ugari Espainiako familiarengan ekoiztutako aldaketak jakinarazten joan dira XX.mendeko azken laurdenean (Flaquer, 2000; Meil, 1999; Pérez-Díaz, Chulea, eta Valiente, 2000): ezkontzen murrizketak, guraso bakarrak, berriz osatutako familia eredu berriak, lanerako emakumeen altxatzea, ezkontzatik at jaiotako seme-alaben gehikuntza, etab. Hortaz, esan daiteke gaur egun familia-patroi aniztasun handia dagoela. Nahiz eta harremanetan egoteko erak aldatu, familia ez da desagertuko; izan ere, gizarteak ez dio uko egingo familiari, hain tresna erabilgarria izanda (Pérez de Guzmán, 2002).

Familien aldaketekin jarraituz, bi dira gailentzen diren familia eredu nagusiak: eredu tradizionala eta gaur egungo eredu. Eredu tradizionalari dagokionez, nagusitu izan da XX. mendearen hasiera arte. Bertan, hiru belaunaldi elkar bizi zuten eta eredu gisa balio izan du. Hedatutako familia nuklearrari bidea eman zion eta aitak, amak eta seme-alabek eratzen zuten. Gehienetan ugaria izan da 80. hamarkadara arte, eta batzuetan beste kide batzuen bidez handituta. Gaur egungo eredu delatua eta, hainbat azpimultzo hartzen ditu bere barnean. Familia eredu ugari honek abantaila asko zituen haurren sozializaziorako (Valdivia, 2008). Gaur egungo ereduari erreparatuz, esan daiteke egun aukera dagoela familia desberdinak eratzeko. Familiaren azken ereduak helduei eta haurrei inguratu ahal dieten egoerak ikus dezakete. Hona hemen gaur egungo ereduaren azpimultzoak (Valdivia, 2008): familia nuklear txikia, familia eta etxe gurasobakarrak, izatezko bikoteak, bikote homosexualak, berreraikitako familiak, eta

modelo berriak (i.e., bere jatorria intseminazio artifiziala edo manipulazio genetikoa dena).

Urte batzuk atzerago, familiek gaur egungo baino berezko sendotasun-elementu hobeagoak zituzten: kide gehiago eta haiekin interakzio gehiago izateko parada, egonkortasun handiagoa zuten, estres gutxiago, etab. Egun, berriz, familiak, nahiz eta formakuntza eta heziketa maila handiagoa izan, sentikorragoak dira eragin sozial negatiboekiko, baita euren egitura ahulagoak dira. Ondorioz, familia hauek bere heziketa-akzioan inoiz baino laguntza gehiago behar dute (Maestre, 2009). Izan ere, Arendt-en (1995) arabera, helduek segurtasuna eta belaunaldi berriei zer eskaini nahi dieten modelo gisa definitzeko gaitasuna galdu dute.

Bestetik, heziketaren ikuspuntutik, familia ere aldatzen joan da. Familia pasatu da bere seme-alaben heziketaz arduratzeaz, zeregin honen parte handia eskolaren esku uztera. Egoera honek familiaren eta eskolaren ikuspegi hezitzaile berriak eskatzen ditu, zeinek proiektu komun batean elkarlanean aritu behar diren (Tuesca, Girón, eta Navarro, 2012).

Eskola, familia bezala, gorabehera sozialetara, eskaera desberdinetara eta gizartea exijitu izan dituen funtzioetara moldatzen joan da (Pérez de Guzmán, 2002). Familien eredu aldaketak (i.e., emakumearen eremu laboraleko altxatzea, ezkontzatik kanpo jaiotako seme-alabak, eta familia gurasobakar gehiagoren existentzia) direla eta, eskolaren funtzioa handitu egin da; izan ere, familiak heziketa-funtzio asko eskolaren menpe utzi ditu. Hori dela eta, haurtzaindegien kopurua handitu egin da (Maestre, 2009). Hortaz, argi dago familien aldaketek eragin handia dutela eskolengan.

Bestalde, gizartea aldatzen joan den heinean, eskolak ere aldaketak pairatu ditu. Esate baterako, familiaren erakundearekin lotzeko izandako eran. Lehen eskolek komunitatearekiko bat-egite estua mantentzen zuten, baina XX. mendearen hasieran urruntzen hasi ziren. Maisu-maistrek materialak irakasten zituzten eta gurasoen esperientziatik urrundutako metodoak erabiltzen zituzten. Familiaren eta eskolaren erantzukizunak desberdinak zirela hasi zen pentsatzen. Hau da, gurasoak gizalegeak erakustez arduratu behar ziren eta irakasleak, aldiz, irakurketa, idazkera, matematikak, etab. irakasteaz. Familia eta eskola helburu independentetara bideratuta zeuden. Hala eta guztiz ere, horrek batzuetan liskarrak sortarazten zituen. Azken urteotan, ikuspuntu hau ordezkatu egin da eskolak eta familiak erantzukizun komunak

dituztela hedatu izan den ideiatatik. Hortaz, bai familiek, bai eskolek, heziketan parte hartu behar dute (Maestre, 2009).

### **1.3. Familia eta eskolaren arteko harremana**

Eztaba daezina da, bai familiek, bai eskolek, garrantzia handia dutela gizabanakoaren heziketan, formakuntzan eta garapenean (Pérez de Guzmán, 2002). Hortaz, Sánchez-Velasco-ren (1990) esanetan, familia eta eskola ezin dira lotura gabeko munduak izan eta eskolan gertatzen dena etxean inportatzen du (Pérez de Guzmán, 2002). Familia eta eskolaren arteko erlazio onaren xedea haurra beste eremu sozial batean integratzea da eta lotura txeratsu egokia ezartzea (Aguirre, 2016). Bestalde, esan beharra dago, nahiz eta guraso eta irakasleen arteko konexioari hainbeste garrantzia eman, askotan bide desberdinak jarraitzen dituztela eta heziketa-funtzioan bakarrik sentitzen direla (Pérez de Guzmán, 2002).

Horregatik guztiatik, familia eta eskolaren arteko harremana oso garrantzitsua da haurraren segimendurako, baita heziketa-lanketan jarraitasuna bermatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da erlazio komunikatibo arina eta etengabekoa izatea. Gurasoek irakasleen formakuntzaz fidatu behar dira, eta horiek gurasoen laguntzarekin batera haurraren garapen integralari ekingo diote (Aguirre, 2016). Heziketa-akzioko familien inplikazioa eta erantzukizunak partekatuz ezartzen den erlazio positiboa haurrek eskola etapan lorpena eskuratzea ahalbidetzen duen eragile nagusienetarikotzat hartzen da (Kherroubi, 2008).

Bestetik, nahiz eta parte-hartzea eta harremana sinonimoak ez izan, familien inplikazioari erreferentzia egiteko erabiltzen dira maiz bi termino horiek, bereziki hezkuntza arloan (Llevot eta Bernad, 2015). Eskola-eremuko gurasoen parte-hartzea, nahitaez, familiaren eta eskolaren arteko elkarrekiko erlazioko multzoaren barruan sartu behar da. Familia eta eskola heziketa-zereginetan erakunde osagarriak direnez, beharrezkoa da bien arteko erlazioen ezagueran sakontzea eta lankidetzaren emankorra lortzeko formulak diseinatzea (Consejo Escolar del Estado, 2015).

Jarraitzeko, esan beharra dago gurasoek erantzukizunak eskolaren esku uzten badute edo ez badute eskolarekin batera lan egiten, honen lana oso konplexua dela; izan ere, lehen mailako sozializazioaren alderdiez arduratu beharko lukete. Horregatik, gurasoen eta eskolaren arteko osagarritasunaren garrantzia ezinbestekoa da (Jurado, 2009). Harreman hauek funtsezkoak dira haurrekin era koherenteago batean parte-hartzeko, gogoratuz familia eta eskola bere garapen-eremu nagusiak direla (Oller,

2007). Gainera, Oller-en (1998) ustez, beharrezkoa da gurasoak eskolan parte-hartzera animatzen dituzten ekimenak bilatzea. Hona hemen familia eta eskolaren arteko harremana eraginkorragoa izateko hainbat irizpide (Bolívar, 2006):

- *Guraso bezala jardutea*: haurrek ikasketetan laguntza izan dezaten, familiak haurra babestu behar du ingurune familiar batean.
- *Komunikazioa*: eskolaren irakaskuntzari buruzko komunikazio bikoitzeko forma eraginkorrak diseinatzea eta egitea.
- *Boluntaritatea*: gurasoak ongi etorriak dira eskolara gelan laguntza eta euskarria antolatzen.
- *Etxean ikastea*: familiei laguntzea informazioa eta aukerak eskainiz haien umei etxean nola lagundu ahal dieten jakiteko.
- *Erabaki-hartzea*: gurasoen parte-hartzea eskolako gobernuan.
- *Komunitateari laguntzea*: eskolei laguntzeko asmoarekin, komunitatearen baliabideak eta zerbitzuak integratu.

## **2. PARTE-HARTZEA**

Gurasoen parte-hartzea eskolan funtsezkoa denez, horretan sakondu aurretik parte-hartzeari dagokion autore desberdinen hainbat kontzeptu aurkeztuko dira, esanahia hobeto ulertzeko asmoarekin.

### **2.1. Parte-hartzearen kontzeptua**

Azken urteotan, parte-hartzea gizartearen eremu guztietan sendotzen joan da (Kñallisky, 2001). Parte-hartzea gertaera konplexua da eta testuinguruaren eta nahasitako agenteen arabera esanahi desberdinak izan ditzake. Zentzu orokor batean, parte-hartzeak pertsonen arazo bat konpontzeko banaka edo taldeka garatzen dituzten jardueretako multzoa bere baitan hartzen du (Llevot eta Bernad, 2015).

Kñallisky-en (2001) testuan aipatzen den moduan, egile ugariak proposatu dituzte parte-hartzearen definizio desberdinak. Hortaz, esan daiteke ez dela osotasun osoz definitzeko kontzeptu erraza. Medina-ren (1990) arabera, parte-hartzea erabakien eta errealizazioen arduraduna izatea suposatzen du, baita komunitatearen jardueretan parte hartzea ere. Pindado-k (2000), berriz, esaten du parte-hartzeak suposatzen duela borondatezko eta esku-hartzezko plusa eta talde, herri edo hiri bateko kide izateko sentimendua izatea (Llevot eta Bernad, 2015). Santos-Guerra-ren (1999) ustez, parte-hartzea gizarte-akzio bat da, non erabakietan eta plangintzarekin,

jokaerarekin eta eskolan garatzen diren jardueren ebaluazioarekin erlazionatuta dauden akzioetan oinarritzen den. Azkenik, García-Albaladejo-k eta Sánchez-Liarte-k (2006) definitzen dute eskolaren parte-hartzea heziketa-komunitatean helburu komunak partekatzen eramatean duen kolaborazio prozesu bat bezala.

## **2.2. Parte-hartzeko mailak**

Gurasoen parte-hartzea ulertu behar da borondatezko eta arduratsua den buruko eta jarrerazko inplikazio gisa. Parte-hartzaileen inplikazioaren arabera, heziketa-zentroetako parte-hartzeak intentsitate gradu desberdinak izan ditzake (Kñallisky, 2001). Hortaz, heziketa-zentroetako gurasoen parte-hartzea maila desberdinetatik analizatu dezakegu (Pérez de Guzmán, 2002).

Gamarra-ren (2015) arabera, parte-hartzeko bi maila daude. Lehenengoak, *indibidualak*, dio parte-hartze hau gogortu behar dela familiei arratsaldeko ordutegia luzatuz, informaziorako sarbidea errazteko asmoarekin. Gainera, informazioa ahalik eta azkarren ailegatzeko, teknologia berriak erabili behar dira. Honetaz gain, taldeko formakuntza egin behar da konfiantza sortzeko. Bigarrenak, *kolektiboak*, dio portaera eta jokaera jarraibideak jarritz, garatzen dituzten bideak sortu behar direla gatazkak saihesteko asmoarekin. Maila honetan gurasoen elkarrekin ezinbestekoak dira, izan ere, zentroetan kultura parte-hartzailea bultzatzen dute.

Pérez de Guzmán-en (2002) arabera, Gamarrak (2015) uste duen bezala, parte-hartzeko bi maila daude: alde batetik, heziketa-politikakoa eta eskola-kudeaketakoa, gurasoen parte-hartze formalaren bidez eskolaren egitura definitzen den organo desberdinetako kide ordezkari gisa; eta beste aldetik, borondatezkoa.

Gento-Palacios-ek (1994) sei maila planteatzen ditu zentroaren zuzendaritzak parte-hartzaileengan duen pisuaren arabera: informazioa, kontsulta, proposamenen lanketa, eskuordetzea edo delegazio boterea, koerabakia, eta kogestioa eta autogestioa. Azken maila hauetara nekez ailegatu da. Irakasleek ez dute nahi heziketa-kudeaketa gurasoekin konpartitu, hori dela eta, gurasoen parte-hartzea existitzen denean maila baxuenetan ematen da (Kñallisky, 2001).

Jarraitzeko, esan beharra dago gero eta premia-koagoa egiten ari dela gurasoen akzio parte-hartzailea zentroen bizitzan. Izan ere, ez da soilik parte-hartzeaz tratatzen, baizik eta kolaborazioaz batez ere (Pérez de Guzmán, 2002). Confederación Española de Asociaciones de Padres de Alumnos-ek (CEAPA) 2008. urtean egindako

ikerketak erakusten du parte-hartzearen ikuspuntua ez dela oso arrakastatsua (Aguilar eta Leiva, 2012):

- Bakarrik gurasoen %22.5ek parte-hartzen dute haien seme-alaben ikastetxeen guraso elkarteetan.
- Horietatik soilik gurasoen %14ek parte-hartzen dute aktiboki.
- %51k guraso elkarteak ezarrita duen kuota ordaintzen du soilik.
- %38a ez dago pozik aipaturiko elkartearen funtzionamenduarekin.

### **3. FAMILIEN PARTE-HARTZEA**

#### **3.1. Familiaren parte-hartzearen garrantzia**

Heziketa-akzioa gutxiegia izaten da haurren garapen osoan heziketa-beharrak asetzeko. Horregatik, gurasoek haien seme-alaben heziketan parte-hartzen dutenez, era formal edo informal batean balioak, jokaerako jarraibideak, ohiturak eta jarrerak transmitituz, garrantzitsua da ikaslearen nortasunaren garapen osoa eta globala bultzatzen duen familiaren osaketa (Jurado, 2009). Hortaz, eskolek ezin dute egokiro lan egin familiengandik isolatuak. Eskolek familiekin batera lan egiten dutenean ikasleen ikasketak bermatzeko, hauek arrakasta izan ohi dute (Bolívar, 2006). Familia-eskola parte-hartze egokiarekin lor daitezkeen efektu positiboak ikasleengana, familiengana eta heziketa-zentroetara heltzen dira (Consejo Escolar del Estado, 2015). Hala ere, badaude guraso batzuek heziketa-zentroarekiko harreman guztia saihesten dutenak (Kñallisky, 2001).

Bestetik, esatea eskola-bizitzako gurasoen parte-hartzeak eragina izaten ditu, esate baterako, haurren autoestimuan, eskola-errendimenduan, guraso eta seme-alaben arteko erlazioan eta eskolarantzko gurasoen jarreran (Pineault, 2001). Beraz, esan daiteke ikastetxeetako familiaren akzio parte-hartzaileen garapena ekarpen eraginkorra dela ikasleen egoera hobetzeko (Domínguez eta Pino, 2009). Gainera, Consello Escolar de Galicia-k (1996) aurrera eramandako ikerketan aditzera ematen diotenez familiaren parte-hartzeak berak laguntzen du familien, ikasleen eta irakasleen garapenean (Domínguez eta Pino, 2009).

Funtsean, zaila da familien parte-hartze aktiborik gabe Haur Hezkuntza onuragarri batean pentsatzea (Mariñas eta Rodríguez, 1999). Hortaz, hemen adierazitakoa kontuan izanda, esan daiteke familien parte-hartzea eskoletan

ezinbestekoa dela haurren garapenerako. Izan ere, gurasoen parte-hartzeak haien seme-alaben heziketa-kalitatea handitzen du (Jurado, 2009); hau da, gurasoek haien seme-alaben irakaskuntzan parte-hartzen dutenean, oro har emaitza hobekiak lortzen dituzte, portaera hobea dute, eskolarantzko jarrera positiboagoak izaten dituzte eta bizitzan arrakastatsukoak izateko hazten dira (Tuesca, Girón, eta Navarro, 2012).

### 3.2. Parte-hartzeko bideak

Familiaren benetako parte-hartzea egoteko, heziketa-zentroak familiari haien seme-alaben heziketari buruzko plangintza eta erabakiak erraztu behar dizkio. Helburu komuneko lanketa egitea beharrezkoa da, eta gurasoen parte-hartzea graduala eta sistematikoa izan behar da, zentroarekin eta irakasleekin esfortzu komunak bateratuz (Jurado, 2009).

Bestetik, zentroen kontrol demokratikoa eta kudeaketa parte-hartzailea posible da, baina horretarako beharrezkoa da aurretik formakuntza eta gogoeta izatea (Jurado, 2009). Eskolak antolatu behar dira gurasoak kontuan izanda; bestela, familiekin partekatutako zereginak ikusezinak egingo dira eta azkenean amaituko dira (Domínguez eta Pino, 2009).

Ikastetxeek gurasoen papera areagotzeko pausuak eman ditzakete, hala nola, eskolen, irakasleen eta ikasleen laguntzan inplikatzeko forma praktikoa erakustea (Hoover-Dempsey, 2005). Gauzak horrela, familien inplikazioa eskolan areagotzeko estrategiak bi talde handitan sailka daitezke:

- *Familiak inplikatzeko ikastetxearen ahalmenak areagotzeko estrategiak:* zuzendaritza-taldeak irakasleen eta familien arteko parte-hartzearen eta harremanen alde egoteko neurri multzo bat har dezake.
- *Familiak modu eraginkor batean inplikatzeko estrategiak bilatzea:* eskolaren euskarri esplizitua gurasoek paper aktiboa eraiki dezaten.

Estrategien ildotik, Navarro-ren (1999) arabera, hiru estrategia mota daude, gurasoak heziketan parte hartu ahal izateko. Estrategiak sailkatuta daude familiak eskolan duen parte-hartzearen arabera: *taldeka parte-hartzeko estrategiak* (i.e., gurasoek kudeaketa eta administrazio organoetan parte-hartzea posible egiten dute); *parte-hartze pertsonaleko estrategiak* (i.e., indibidualki edo taldeka gurasoen parte-hartzea baimentzen duen estrategiak biltzen ditu); eta *parte-hartzeko estrategia para-*

*instituzionalak* (i.e., zentroen kudeaketan parte-hartze zuzena ez duten organoekin eratuta dago, eta bere existentzia kideen borondatearen mendean dago).

Eskolako parte-hartzea banaka (e.g., gurasoek hezitzailearekin harremana daukate, bileretara joaten dira, etab.) edo kolektiboki (e.g., gurasoen elkartea, eskola kontseilua, etab.) ere ulertu daiteke, heziketa-komunitatearen kide aktiboa izanik. Gurasoek eskolan parte-hartzeko bideak honako hauek dira (Maestre, 2009), jarraian dagoen 1.Taulan agertzen den bezala.

1. Taula. *Eskolan parte-hartzeko bideak.*

Elkarrizketak	Informazio eta ideiak trukatzeko direnez, irakasleak gurasoekin komunikatzeko duen biderik onenak dira.
Eskolako zereginak egiteko etxeko laguntza	Gurasoek etxetik materialak edo bere lanetarako informazioa bilatzen lagundu dezakete. Batzuetan gurasoentzat lan hau pixka bat zaila izan daiteke; hortaz, gure laguntza behar dute lana egiteko.
Irteeretako laguntzaileak	Eskolatik kanpo egiten diren bisitetan laguntzeko prest dauden gurasoak.
Izaera desberdineko tailerretako parte-hartzea	Familiak eta maisuek hurrekin batera eskolako jarduerentzako materialak eraikitzen dituzte.
Klase edo etapako batzarretan parte-hartzea	Gurasoen eta irakasleen arteko bilerak dira, ikasleekin lan-proiektuari buruz informatzeko.
Festak eta ospakizunak	Gabonetako festak, inauterietako festak, etab. ospatzea eskola-ordutegitik kanpo irakasleen eta gurasoen arteko topaketa ezartzeko aukera sortzen du.
Eskola kontseilua	Eskola kontseiluaren funtzioen artean nabarmenena da proiektuen eta parte-hartzearen arauak onartzea eta ebaluatzea.
Gurasoen elkartetan parte-hartzea	Guraso elkarteak gurasoen eskubideak aldarrikatzen dituzten entitate parte-hartzaileak eta gurasoen jardueretako dinamizatzaileak dira. Honetaz gain, jarduera kulturalen antolatzaileak dira. Haien helburuak gurasoen eskubideak babestea, heziketaren kalitatea sustatzea, parte-hartzea sustatzea, etab. dira.



Gurasoen eskolak	Familiaren heziketarako prestakuntzarantz eta orientaziorantz bideratuta dago. Heziketa-prozesuaren ulermen zuzenerako jarrera egokiak garatzeko zentratzen dute haien helburuak.
Jaialdi, ospakizun eta ekintzak	Eskolan egiten diren jaietan, ospakizunetan, erakustetan, etab. parte-hartzea.

Ikusi ahal izan den moduan, kanal ugari daude familiek eskolan parte har dezaten (Mariñas eta Rodríguez, 1999). Arestian aipatutako bide horiek, hain zuzen, kanal formaletan (i.e., gurasoak kurso hasierako bilerara joaten direnean) eta informaletan (i.e., gurasoek sarrera eta irteeretan gurasoekin hitz egiten dutenean) bereiz daitezke (Llevot eta Bernad, 2015).

### 3.3. Parte-hartzeko zailtasunak eta oztopoak

Familiak eskolan parte hartzeko dituen aukerak anitzak dira, baina berebiziko garrantzia duena eskola bakoitzak horretarako kanal egokiak aurkitzeko gai izatea da. Horretaz gain, eskola eta familiaren arteko harremana ez dago zailtasunetatik salbuetsita (Kñallisky, 2001). Are gehiago, kexa eta argudiatze ugari daude benetako parte-hartzea garatzeko zailtasunaz arduratzen diren talde desberdinen aldetik (Jurado, 2009). Laburbilduz, esan daiteke arazoak eta zailtasunak anitzak direla (Navarro, 1999) eta horiek hiru motatakoak izan daitezkeela: instituzionalak, indibidualak eta pertsonalak (Jurado, 2009).

Heziketa-erakundearen zailtasunei dagokienez, esan daiteke zailtasunik handiena kudeaketa parte-hartzaileko taldeen arteko komunikazio eza dela. Lana, informazioa eta komunikazioa errazten dituen plangintza on batekin lan egiteko asmoa badago eta prozesua eraginkorra izan dadin, jaria korra izan behar da hezkuntza-eragile desberdinen arteko hartu-eman eta momentu orotan gertatu behar da (Jurado, 2009).

Parte-hartzeko gurasoen zailtasunei erreparatuz, esan daiteke hiru arrazoi nagusi daudela eskolen heziketa-laneko gurasoen parte-hartzea urria izateko: informazio falta, desberdintasun kulturalak eta sozialak, eta familien ekarpenerantzko dauden beldurren eta segurtasun-gabeziaren existentzia (Jurado, 2009). Arazo horien aurrean, motibazio falta dela eta, familia batzuek uko egin diote parte-hartzeko eskubideari, haien eskubide kohezitzaileak alde batera utziz (Navarro, 1999).

Bestalde, irakasleen zailtasunak aztertuz, agerikoa da mesfidantza jarrerak daudela gurasoen parte-hartzerantz, eta beste batzuetan, liskarrak agertzen direla bakoitzaren papera zein den argi uzteko. Hori dela eta, irakasle batzuek pentsatzen dute gurasoen parte-hartzeari garrantzia gehiegi ematen ari zaiola eta uste dute haien autoritatea galtzen ari dela (Jurado, 2009). Orokorrean, irakasleak mehatxatuta sentitzen dira, gurasoen presentzia eta zuzendaritza organo honetako kidea izateko aukera dela eta (Navarro, 1999). Bestalde, badaude zailtasun nagusiena familiaren eta irakasleen prestakuntza eza dela aditzera ematen dutenak. Izan ere, irakasleen aldetik, hasierako prestakuntza eta heziketa iraunkorra oso urria da (Jurado, 2009). Funtsean, eskolan parte-hartzeko zailtasunak asko dira eta zailtasunik nagusienak formakuntza falta, desberdintasun kulturala, baliabide falta, informazio eza, etab. dira (Jurado, 2009).

## **METODOA**

### **Helburuak eta hipotesiak**

Lana eraikitzeke ezinbestekoa da helburu orokor bat eta zeharkako helburu batzuk planteatzea eta zehaztea. Hori dela eta, behin marko teorikoan familiaren parte-hartzearen garrantzia ikusita, lanaren helburu orokorra Trapagarango ikastetxe baten familien parte-hartzea eskolan zein den aztertzea da, jarraian hurrengo puntuak aztertuz: familiek eskolan parte-hartzeko dituzten bideak arakatzea; familiek eskolan parte-hartzeko dituzten zailtasunak edo erraztasunak aztertzea; familiek egun eskola parte-hartzearen inguruan duten iritzia behatzea; eta familiek eskolan parte-hartzeko estrategiak eskuragarri dituzten detektatzea.

Hipotesiei dagokienez, kontuan izanda lan honen helburu orokorra eta helburu zehatzak, hipotesiak honako hauek dira: (H<sub>1</sub>) gaur egun gurasoek ez dute parte-hartze handirik ikastetxeetan; (H<sub>2</sub>) familiek zailtasunak dituzte eskoletan parte-hartzeko; (H<sub>3</sub>) eskoletan ez dira estrategiarik ezartzen gurasoek parte-hartzeko; eta (H<sub>4</sub>) emakumeak dira gehien bat eskolako erabakigune desberdinetan parte hartzen dutenak.

### **Parte hartzaileak**

Lana aurrera eramango da Trapagaranen kokatuta dagoen ikastetxe publiko batean, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, hain zuzen. Ikerketa hau aurrera eraman den ikastetxea D eredukoa da eta euskaldun eta laiko gisa definitzen du bere burua.

Eskolak bi hezkuntza maila eskaintzen ditu: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Dena dela ere, ez ditu irakasle eta ikasle kopuru handirik. Hain zuzen ere, 208 ikasle daude matrikulatuta eta horietatik 59 Haur Hezkuntzakoak dira; Lehen Hezkuntzakoak, berriz, 149. Ikerketa honetarako Haur Hezkuntzako bigarren zikloan kokatzen den 5 urteko gela erabili izan da. Bost urteko gela honetan 15 ikasle daude, 8 neska eta 7 mutil. Familia gehienak euskaldunak dira, bat izan ezik, etorkina dena; hala ere, Euskal Herrian jaiotakoa. Horiek eskolak dituen datuen arabera estatus sozio-ekonomiko eta kultural erdi-altukoak dira. Bestetik, gehienen ama-hizkuntza euskara denez, haurren euskara maila altua da eta honek asko laguntzen du gelako dinamika aurrera eramateko orduan. Gaitasunei dagokienez, bost urteko gela honetan entzuteko zailtasunak dituen mutil bat dago eta horretarako audiofono bat eramaten du. Haur horretaz gain, badago zailtasun kognitiboak dituen zantzuak erakusten dituen neska, bai euskara hitz egiteko eta ulertzeko, baita zenbakiekin haritzeko.

### **Erabilitako tresnak**

Lan honetan erabilitako tresnetako bat ad hoc sortutako galdetegia izan da, non familiaren eskolan duen parte-hartzearen inguruko galdera zehatzak eta orokorrak agertzen diren. Galdetegiak, alde batetik, parte-hartzaileen iritzia zein den jakiteko balio du, hortaz, planteatutako helburuei eta hipotesiei erantzun ahal izateko. Galdetegia bada horren inguruko erantzunak emateko metodo erraza eta azkarra; izan ere, familiek ez dute denbora askorik behar egiteko, bost minutu besterik ez. Gainera, metodo horren bidez datu zehatzak lortu daitezke ondoren aztertu ahal izateko. Hau guztia kontuan izanda, metodo eraginkorra da informazioa osotasun osoz batzeko.

Beraz, galdetegi hau 18 galderaz osatuta dago, ikastetxeko familien parte-hartzea zein den jakiteko eta II. eranskinean aurkitu daiteke. Galdetegia bi hizkuntza desberdinetan formulatuta dago, bai euskaraz, bai gazteleraz. Izan ere, familia batzuek euskara dute bere ama-hizkuntza eta beste batzuek, ordea, ez. Galderei dagokienez, ikus daiteke nola helburu zehatz batekin lotuta duten. Bertan erantzun kualitatiboak eta kuantitatiboak agertzen dira, proposatutako galderen arabera. Guztira 15 galdetegi pasatu izan dira, bat familia bakoitzeko. Hala ere, 15 horietatik 12 izan dira erantzun dituztenak.


## Prozesua

Metodoarekin jarraitzeko, ezinbestekoa da ikerketarako erabilitako prozedura azaltzea. Hasteko, lanaren helburuak eta hipotesiak zehaztu ziren. Jarraitzeko, praktiketako tutoreari eta eskolako zuzendariari baimena eskatu zitzairen. Behin horiekin hitz eginda, hurrengo pausoa tutoreari gurasoen parte-hartzeari buruz sortutako galdetegiak ematea izan zen, berak gelako gurasoei banatzeko. Galdetegiarekin batera ohar bat zegoen lan honen helburua eta nondik-norakoak azalduz. Gainera, oharraren bidez argi utzi zitzairen haien erantzunak guztiz anonimoak izango zirela eta datuak soilik lan honetarako erabiliko zirela. Amaitzeko, gurasoek hilabete bat izan zuten galdetegiak erantzuteko. Ondoren, emaitzak aztertu dira kualitatibo eta kuantitatiboki.

## EMAITZAK


Lanaren atal honetan aurrean aipatutako eskolan familiek duten parte-hartzea eta harremana deskribatuko da. Horretarako, gurasoek erantzun dituzten galdetegiak errepresentatuko zaio. Guztira 12 galdetegi bete egin dira; hamabi horietatik %25a aitek erantzun dute, eta gainontzeko %75a, amek.

Familiek bete dituzten galdetegi kopurua kontuan izanda, gurasoen %50ek lan egiten du, eta %50ek ez (ikusbedi 1. Grafikoa). Lana eta eskolako bizitza uztartzeko zailtasunei dagokionez, %50ak dio ez duela inolako arazorik, beste %50ak, aldiz, bai. Modu beretsuan, zailtasunak dituztenen artean ordutegi bateraezinak dira familien arazo nagusia.




1. Grafikoa. Zailtasunen bat daukazu lana eta zure seme-alabaren eskola-bizitza uztartzeko?

Bestetik, gurasoek eskolan duten parte-hartzearen inguruan %83ak eskolarekiko harremana duela adierazi du (ikusbedi 2. Grafikoa). Jarraian, familiek, aukera guztien artean, *tailerrak, festak eta ospakizunak* parte-hartze hori aurrera eramateko aukera aproposena izan daitekeela helarazi dute. Hurrengo parte-hartzeko aukera hautatuena *txangoetan parte-hartzeko bidea* izango litzateke, batzuek horrela hautatu dutelako; hirugarren eta laugarren aukera hautatuenean kasuan, bi bide egongo lirateke. Hirugarrenean, *eskolaz kanpoko jarduerak* eta *guraso elkarteak* aukerak aurkitzen dira, eta laugarrenean, *eskola kontseilua* eta *banakako bilerak*. Beraz, argi dago erantzun duten gurasoen artean *talde bilerak* ez dituztela kontutan izaten eskolan parte hartzeko bide gisa.



2. Grafikoa. Zure seme-alabaren eskolarekiko erlaziorik daukazu?


Jarraitzeko, gurasoen iritzia bildu da familiaren eta eskolaren arteko harremana egoteren garrantziaz (ikusbedi 3. Grafikoa).




3. Grafikoa. Uste duzu garrantzitsua dela familiaren eta eskolaren arteko harremanaegotea?

Kasu horretan, parte-hartzaile guztiak ados jarri dira haien erantzuna plazaratzeko momentuan; izan ere, guztiek adostu dute bi heziketa-eragile horien harremana egotea ezinbestekoa dela euren seme-alaben garapena eta heziketa hobetzeko.

Parte-hartzea handiago izan beharko duelaren inguruan (ikusbedi 4. Grafikoa), berriz ere ikus daiteke %83ak jakinarazi duela gurasoek eskolan parte-hartze handiagoa izan beharko luketela, aurrekoan bezala, haien seme-alaben garapena eta formakuntza hobea izan dadin. Jarraian, gurasoek eskolak proposatzen dituen jardueretan parte-hartze aktiboa duten galdetzen duen galderari ekiten badiogu (ikusbedi 5. Grafikoa), ikus daiteke guraso gehienek parte-hartze aktiboa dutela; izan ere, hamabi pertsonetatik soilik lauk esan dute ez dutela parte-hartze aktiborik.




4. Grafikoa. Uste duzu familiek parte-hartze handiagoa izan beharko luketela?




5. Grafikoa. Eskolak proposatzen dituen jardueretan parte-hartze aktiboa duzu?

Bestetik, gurasoen %92ak esaten du eskolak haien parte-hartzea errazten duela (ikusbedi 6. Grafikoa). Zein motatako oztopoak edo erraztasunak aurkitzen dituzten inguruan galdetu zaie familiei. Galdera hau zortzi pertsonak bete egin dute, gehienek haien ordutegiarekiko oztopoa plazaratu dutenak. Zortzi pertsona horietatik soilik batek adierazi du eskolak erraztasunak jartzen dituela, horretarako ekintza andana daudela adieraziz.



6. *Grafikoa.* Eskolak errazten du familien parte-hartzea?


Bestalde, galdetegian parte hartu duten guraso guztiek adierazi dute informazioa zentrotik jasotzen dutela (ikusbedi 7. Grafikoa). Hurrengo galdera aurrekoaren jarraitasuna da; izan ere, behin erantzunda informazioa eskolatik jasotzen dutela, oraingoan, zein iturritik jasotzen duten aipatu behar dute. Erantzun guztiak kontuan izanda, eskolek informazioa bidaltzeko gehien erabiltzen dituen iturriak posta elektronikoa, Whatsapp-a, paper informatzaileak, eta Internet-a dira.



7. *Grafikoa.* Informazioa zentrotik jasotzen duzu?


Jarraitzeko, eskolak erabakiak hartzean gurasoen iritzia kontuan hartzen duen informazioari buruzko datuak jaso dira (ikusbedi 8. Grafikoa). Bertan, ikus daiteke galdetutakoen %83ak helarazi duela ikastetxeak bere iritzia kontuan hartzen duela.

%9ak, aldiz, aipatu du eskolak ez duela bere iritzia kontuan hartzen; gainontzeko 8ek ez dute galdera honi erantzun.



8. Grafikoa. Eskolak zure iritzia kontuan hartzen du erabakiak hartu behar direnean?

Azkenik, parte-hartzaileek parada izan dute plazaratzeko nola eman dezaketen haien iritzia eskolak kontuan hartzeko (ikusbedi 9. Grafikoa), baina %25ak erabaki du galdera honi ez erantzutea. Erantzun duten gehienek helarazi dute *guraso elkarteak* eta *iradokizun postontzia* biderik aproposenak direla haien iritzia eta proposamenak zabaltzeko. Horretaz gain, sarritan erabiltzen ez diren beste bide batzuk proposatu dituzte, esate baterako, zuzendariarekin hitz egitea, posta elektronikora bidaltzea, eta eskola-kontseiluan parte hartzea.



9. Grafikoa. Nola plazaratu dezakezu zure iritzia eskolak kontuan hartzeko?



## ONDORIOAK

Behin prozesua burutu ondoren, lanaren atal honetan aztergaiari buruzko ondorioak azalduko dira, bi atal nagusietan bananduta. Alde batetik, eskolan parte-hartzearen inguruko emaitzak baloratuko dira, egindako ikerketa kontuan hartuz. Beste alde batetik, egindako lan honen inguruko hausnarketa pertsonala agertuko da; esate baterako, zer-nolako ekarpenak dituen azalduz eta niretzat zer suposatzen duen.

Galdetegiaren bidez lortutako emaitzei dagokienez, hasteko, esan beharra dago erantzun dutenen artean desberdintasun handia dagoela gizonen eta emakumeen artean; izan ere, soilik hiru gizon izan dira galdetegiari erantzutera animatu direnak. Zoritxarrez, oso orokortua dagoen ustea bada soilik amak direlako eskolako zereginen arduratzen direnak. Aitzitik, hiru gizon horien ekarpenari esker, ikus daiteke ez dela beti horrela izaten. Hala ere, emaitzetan argi agertzen den bezala, haiek eskolako gauzei garrantzia ematen dieten arren, ez dute eskolan proposatutako ekintzetan parte-hartzen. Beraz, erantzun horiek guraso batzuen erantzunak eta jarrerak kontrajarriak direla adierazten dute. Paragrafo honetan aipatzen dena kontuan izanda, esan daiteke planteatutako laugarren hipotesia bete egiten dela, emakumeak baitira gehien bat eskolako erabakigune desberdinetan parte-hartzen dutenak.

Bestetik, esatea erantzun duten guraso gehienek lan egiten dutela; baina datuen arabera, nahiz eta lan egin, argi dago eskolak proposatzen dituen jardueretan parte-hartzeko denbora ere lortzen dutela. Marko teorikoan ikus daitekeen moduan, gurasoek jardueretan parte-hartzea ezinbestekoa da haurren garapenerako, Mariñas-ek eta Rodríguez-ek (1999) esaten duten bezala, zaila baita familien parte-hartze aktiborik gabe Haur Hezkuntza onuragarri batean pentsatzea. Horretaz gain, nahiz eta guraso gehienek eskolako hainbat eginkizunetan parte-hartzen duten, emaitzen arabera ikus daiteke guraso batzuek zailtasunak dituztela haien lana eta seme-alaben eskola-bizitza uztartzeko; izan ere, haien lan egiteko ordutegia eta eskolako ordutegia berdina izaten da. Beraz, agian eskolak ez du behar adina errazten gurasoen parte-hartzea, eta beste bide batzuk bilatu beharko lituzke, eskolako ordutegitik kanpo. Hau guztia aztertuta, argi dago bigarren hipotesia baieztatzen dela, bertan ikusi ahal izan den moduan, familiek, ordutegi bateraezinak direla eta, eskolan parte-hartzeko zailtasunak dituztelako.

Jarraitzeko, galdetegiaren erantzunetan bereiz daitekeen moduan, ikastetxean lan egiten duten pertsonen eta gurasoen artean harremana badago. Praktiketara ikusi ahal izan dudan bezala, zentroa familiekin gertutasuna mantentzen saiatzen da

momentu orotan. Horretarako, informazioa bidaltzen dute edozein gauza plazaratzeko. Gainera, erantzunei arreta jarriz gero, ikus daiteke guraso gehienek informazioa zentrotik jasotzen dutela; hots, zentroa informazio iturria da. Nahiz eta gehienek informazioa zentrotik jaso, argi dago eskola ez dela informazio iturri bakarra, beste bide batzuk ere baitaude; esate baterako, gurasoekin ahoz ahoko adierazpenak, Whatsapp taldeak eta abar. Guzti hori kontuan izanik, zentroak familiekin kontaktuan egoteko ahaleginak egiten duela ondoriozta daiteke.

Marko teorikoan agertzen den bezala, bide andana daude familiek haien seme-alaben eskoletan parte hartzeko euren ideiak plazaratuz; adibidez, eskola kontseilua, guraso elkarteak, guraso eskolak, etab. Ikerketa hau aurrera eraman den ikastetxe honetan gurasoek, nahiz eta elkarrekintzarako bide ugari izan, ez diete ia erabilerarik ematen, gehienbat iradokizun postontzia eta guraso elkarteak erabiltzen dutelako. Hortaz, gurasoak askotan kexatzen dira esanez ez daukatela modurik haien ideiak helarazteko edo eskolan parte-hartzeko, baina argi dago aukera desberdin eskuragarri dituztela. Hala eta guztiz ere, familiek ez dute jarrera aktiboa eskolarekiko, aipatu bezala, bide gutxi erabiltzen baitute eskolan parte-hartzeko edo haien iritzia plazaratzeko, eta ez baitute eskolak proposatzen dituen ekintzetan parte-hartzen. Beraz, paragrafoan jartzen duena aztertuz, esan daiteke planteatutako hirugarren hipotesia ezeztatzen dela, estrategia andana daudelako gurasoek parte-hartzeko haien seme-alaben eskoletan.

Aurreko guztia kontuan izanda, esan beharra dago galdetegia bete duten gurasoek, beste praktiketan ikusi dudanarekin alderatuz, parte-hartze maila nahikoa dutela eskola honetan. Gainera, erantzunak ikusita, argi dago haientzako ezinbestekoa dela familiaren eta eskolaren arteko harremana egotea. Baina, hala ere, beste bide batzuk hartu beharko lituzkete haien parte-hartzea handiagoa eta eraginkorragoa izateko. Gainera, hainbat autoreek (Bolívar, 2006; Domínguez eta Pino, 2009; Jurado, 2009; Tuesca, Girón, eta Navarro, 2012) aipatzen dutenez gurasoen parte-hartzea funtsezkoa dela, gurasoek ardua gehiago hartu beharko luketela haien seme-alaben eskoletan. Hortaz, lehenengo hipotesia ez da guztiz baieztatzen, gurasoen parte-hartzea pentsatu nuen baino altuagoa delako eta parte-hartzea handiago izateko aurrerapausoak egin behar direlako.

Lanaren balorazio pertsonalari erreparatuz, esaterik badago ikerketa honek franko lagundu nauela nire etorkizunerako, bai irakasle bezala, bai guraso bezala; izan ere, lan honen bidez egun eskoletan garrantzitsuak diren eta ikusten ez nituen gauzak

hautematen eta baloratzen lagundu nau. Hasteko, ikastetxeetan gurasoen parte-hartzea sustatzeko baliabide (e.g., eskola kontseilua, guraso elkarteak, elkarrizketak, festak eta ospakizunak, etab.) ugari daudela ohartzeko balio izan dit. Nahiz eta praktikak eskoletan irakasle gisa egin, esan beharra daukat ez nituela dauden bide guztiak ezagutzen eta, nire aburuz, ezinbestekoa da horri buruzko ezagutzak izatea. Zergatik ez ditugu ezagutzen irakasle izango garenok? Gai hori irakasle ikasketetan zehar landu beharko litzateke?

Honetaz gain, lan honek balio izan dit familien parte-hartzearen garrantziaz jabetzeko. Behin irakurri ditudan informazio iturriak aztertuta, konturatu naiz familien partizipazioa eskolan funtsezkoa dela haurren garapenerako. Beraz, etorkizun batean guraso eta irakasle izango garenontzako, uste dut gai honi buruzko ezagutzak barneratzea ezinbestekoa dela; horretarako, ikerketa honek aproposa izan daiteke, eskoletan parte-hartzeari buruzko informazio andana eskaintzen duelako. Esate baterako, Gamarra-k (2015) aipatzen dituen parte-hartzeko bi mailak, Maestre-k (2009) proposatzen dituen bideak gurasoak eskolan parte-hartzeko, etab.

Horretaz aparte, nire aburuz, lan honek baliagarria izan daiteke ere ikerketa egin dudana ikastetxerako; izan ere, galdetegiaren emaitzak eta ondorioak ikusita, zuzendariak familien iritziak kontuan izanda aldaketak egin ditzake parte-hartzea hobetzeko asmoarekin. Bestetik, lan honetan egindako prozesu guztia aztertuta, etorkizunean irakasle izanda familiekin harremanak izatea eta haiekin gehiago inplikatzeko ezinbestekoa dela jabetzeko aukera eman dit. Izan ere, Bolívar-ek (2006) esaten duen moduan, eskolek familiekin batera lan egiten dutenean ikasleen ikasketak bermatzeko, hauek arrakasta izan ohi dute. Gainera, marko teorikoan ikus daitekeen bezala, eskola-bizitzako gurasoen parte-hartzeak eragina izaten ditu, esate baterako, haurren autoestimuan, eskola-errendimenduan, guraso eta seme-alaben arteko erlazioan eta eskolarantzko gurasoen jarreran (Pineault, 2001). Honek lan handia suposatuko du nire etorkizuneko jardunean. Izan ere, behatu beharko dut nork parte hartzen duen eta nork ez, baita parte hartzeko bide berriak ahalbideratu beharko ditut, irakasle gisa. Dena dela, nire aburuz, esfortzu hori egitea merezi du.

Parte-hartzeari buruz hitz egiten dudanean, ez dut soilik eskolako ekintzei edo parte-hartzeko bideei buruz hitz egiten, baizik eta familiek etxean egin dezaketen ahaleginari buruz ere. Batzuetan, ikasle batzuek eskolaz kanpo euskarri bat behar dute egoera desberdinei aurre egiteko. Askotan horretarako euskarririk onena gurasoak dira. Hortaz, garrantzia eta onurak ezagututa, etorkizunean gurasoak gehiago parte

hartzera animatuko ditut. Esate baterako, haiekin hitz egingo nuke jakiteko zein den haien lan-ordutegia eta interesak, eta ahal izatekotan, eskola ordutegitik kanpo tailerrak eta ekintzak antolatuko nituzke, euren seme-alabekin batera parte-hartzeko.

Behin ikerketa hau burututa, honek izan duen hainbat ekarpenen artean, gaur egun oraindik generoarekiko parte-hartze desberdintasuna dagoela ikusteko parada eman dit, galdetegian parte hartu duten gehienak emakumeak izan baitira. Horrelako egoerak aztertu eta aldatu beharko lirateke, gauza hauek zeharkako eran irakasten dizkiegulako belaunaldi berriei. Beraz, hau guztia kontuan izanda, gustatuko litzaidake gurasoen ohiturak aldatzen saiatzea eta desberdintasun hori murriztea; esaterako, kurtso hasierako bileran gurasoekin generoari buruz hitz egin. Bertan, azalduko litzateke garrantzitsua dela biek parte-hartzea, haien seme-alabek ikus dezaten bai ama izanda, bai aita izanda, eskolako ekintzetan parte har daitekeela.

Jarraitzeko, esatea badago lan honek suposatutuen gorabeherak lan honen prozesua zaildu duela nabar. Lan honek, hasieratik, estutasun handia sortarazi dit; izan ere, hiru tutore desberdin izan ditut. Tutoreaz aldatzeak lan egiteko modua eta eskakizun maila aldatzea dakar ezinbestean. Honetaz gain, ikerketaren hasierako gaia (i.e., *haurren irteerak eta sarrerak*) aldatu behar izan nuen. Izan ere, egiten hasi nintzenean, konturatu nintzen ez nintzela eroso sentitzen horri buruzko lan bat egiten, behaketa egingo nuen eskolako haurren sarrera eta irteeren antolakuntza falta arrazoi nagusia izanik. Gainera, horri buruzko informazioa bilatzean ez nuen ezer interesgarriarik aurkitzen eta nahiko eskasa zen. Hori dela eta, gaiak aldatzea erabaki nuen eta *gurasoen parte-hartzea eskolan* aukeratu nuen Gradu Amaierako Lan hau aurrera eramateko. Aldaketa horrek, tutore aldaketekin batera, atzerapena ekarri zuen lanean, eta horrek estresa eta ardura sortarazi zidan; baina azkenean konturatu naiz ahaleginekin gauzak lortu daitezkeela. Bestetik, esatea honelako lanak egitea ezinbestekoa dela gure etorkizunerako, beste ikerketa lan batzuk egin ahal izateko gure ikasketak osatzeko asmoarekin. Niri gustatuko litzaidake pedagogiarekin zerikusia daukan zerbait egitea, asko gustatzen zaidalako zailtasunak dituzten hurrekin lan egitea. Horretaz lehenengo praktikak egin nituenean konturatu nintzen, eta esan beharra dago oso sentimendu eta esperientzia polita dela ikustea hurrek zailtasunari aurre egiten dutela.

Funtsean, esan dezaket lan honekin sentimendu desberdin ugari bizi izan ditudala. Izan ere, behin lana amaituta, maila honetako lan eskerga aurrera eramateko

gai sentitzea adieraezina den poztasuna ere piztu du nigan. Aldi berean, lana aurrera eramanez, lanerako onuragarriak ez diren sentimenduak pairatzen dituzu.

Ondorioen atalari bukaera emateko, ikerketa lan hau hobetzeko hobekuntza proposamen batzuk plazaratuko ditut, ateratako emaitzak hobetzeko asmoarekin. Lehenik eta behin, familia eta eskolaren parte-hartzearen ikerketan zer gehiago aztertzea gustatuko litzaidakeen jakinaraziko dut. Amaitzeko, gurasoen parte-hartzea zabaltzeko gomendioak adieraziko ditut.

Hasteko, esan beharra daukat eskola honetan atera diren emaitzak ez direla ikastetxe guztietan aterako diren bezalakoak, eskola bakoitzeko kideak, ohiturak eta baliabideak guztiz desberdinak baitira. Ikerketa honetan erabilitako lagina eskasa da gurasoen benetako parte-hartzea zein den ezagutzeko. Hori dela eta, egokia izango litzateke beste herrietako ikastetxe batzuetara joatea lagina handitzeko asmoarekin. Gainera, ikastetxeak mota desberdinekoak (e.g., publikoak, kristauak, itunpekoak, etab.) izatekotan, lagina zabalagoa izanago litzateke eta parada izango genuke eskola horietako parte-hartzearen diferentzia aztertzeko. Izan ere, nire aburuz, oso interesgarria da ikustea desberdintasunak dauden ala ez ikastetxe mota desberdinen artean.

Jarraitzeko, neure burua irakasle gisa ikusita, gurasoen partizipazioa zabaltzeko gomendio batzuk islatuko ditut. Alde batetik, arestian esan bezala, gurasoen interesak kontuan izanda ekintza batzuk prestatuko nituzke eskola ordutegitik kanpo familiako kide guztiak parte hartu ahal izateko. Beste aldetik, eskola ordutegian eskolara etorri ahal diren gurasoentzako beste jarduera berezi batzuk antolatuko nituzke haurrentzako baliagarriak eta onuragarriak izango direnak.

Hasteko, parte har dezaketen guraso horiei gelako ekintza batzuetan parte-hartzera gonbidatuko nituzke; esaterako, mural bat egin behar denean, kalera ateratzean behar dugun materiala lortzeko (e.g., lurretik dauden hostoak, makilak, etab.), inauteriko mozerroak prestatu behar direnean, etab. Modu horretan, haurrak gurasoekin ekintzak egiten egongo dira eta haien elkarlana hobetzeko aukera izango dute.

Beste proposamen bat aurten praktiketan zehar ikusitako ideia interesgarri bat izango litzateke. Gurasoak aukera izango dute gelara etortzeko haien lanari buruzko aurkezpenak egitera. Adibidez, haur baten guraso bat medikua bada, haien egunerokotasunean egiten duena azaldu dezake, eta horretaz gain, lehen sorospenak

erakutsi ditzake modu erraz batean haurrak honi buruzko ezagutzak izaten has dezaten. Gainera, mota honetako jarduerak eginez, bide batez, haurrak lanbideak ikasten hasten dira.

Amaitzeko, gurasoek parte har dezaten beste proposamen bat botatzea gustatuko litzaidake. Gurasoak, aurrekoan bezala, gelara etorriko dira azalpen bat ematera, baina kasu honetan, haien lanbideei buruz izan beharrean, haien txikitako jolasei buruz solas egingo lukete. Gurasoak kasu honetan banaka, binaka edo taldeka etorri ahal izango dira, modu horretan jolas gehiago ezagutzeko aukera egongo da. Jarduera honen bidez, ez da soilik gurasoen eta haurren parte-hartzea sustatzen, baizik eta galtzen ari diren jolasetara jolastea ere.

Beraz, argi dago gurasoek eskoletan parte-hartzeko bide eta ekintza andana daudela, baina ahaleginak egin behar dira gurasoen parte-hartze hori sustatzeko eta haien interesak pizteko. Modu horretan, haurren garapen pertsonala eta soziala hobetu egingo da.

## ERREFERENTZIAK

- Aguilar, M. C., eta Leiva J. J. (2012). La participación de las familias en las escuelas TIC: análisis y reflexiones educativas. *Pixel-Bit. Revista de Medios y Educación*, 40, 7-19.
- Aguirre, A. M. (2016). Escuela de padres. A. M. Aguirre, C. Caro, S. Fernández, eta M. Silvero (Ed.), *Familia, escuela y sociedad: Manual para maestros* (87-105 or.). Logroño: Universidad Internacional de La Rioja, S. A.
- Arendt, H. (1996). *La crisis de la educación, Entre el pasado y el futuro: Ocho ejercicios sobre la reflexión política-n*. Bartzelona: Península.
- Bolívar, A. (2006). Familia y escuela: Dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación*, 339, 119-146.
- CEAPA (2008). *La participación de las familias en la escuela: Las asociaciones de padres y madres en España*. Madril: CEAPA-Universitat de Lleida.
- Consejo Escolar del Estado (2015). *Las relaciones entre familia y escuela. Experiencias y buenas prácticas*. Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- Domínguez, M. T., eta Pino, M. (2009). La participación de las familias en la escuela. *Educación y Futuro*, 20, 197-224.
- Fernández, M. (2006). *Participación de las familias en la vida escolar: Acciones y estrategias*. Ministerio de Educación.
- Flaquer, L. (2000). *Las políticas familiares en una perspectiva comparada*. Bartzelona: Fundación La Caixa.
- Gamarra, F. M. (2015). La participación de las familias en la escuela. *Fórum Aragón: revista digital de FEAE-Aragón sobre organización y gestión educativa*, 15, 20-22.
- García-Albaladejo, A., eta Sánchez-Liarte, C. (2006). La participación de los padres en los documentos institucionales de los centros educativos, García-Albaladejo-n (koord.). *Participación de las familias en la vida escolar: acciones y estrategias* (149-180 oo.).

- Gento-Palacios, M. (1994). *Participación en la gestión educativa*. Madrid: Santillana.
- Hoover-Dempsey, K. V., Walker, J. M., Sandler, H. M., Whetsel, D., Green, C. L., Wilkins, A. S., eta Closson, K. (2005). Why do parents become involved? Research findings and implications. *Elementary School Journal*, 106(2), 105-130.
- Jurado, C. (2009). La familia y su participación en la comunidad educativa. *Revista Digital Innovación y Experiencias Educativas*, 23, 1-9.
- Kherroubi, M. (Koord.) (2008). *Des parents dans l'école*. Ramonville Saint-Agne: Érès.
- Kñallinsky, E. (2001). La participación de los padres en la escuela. *El Guiniguada*, 10, 57-69.
- Llevot, N., eta Bernad, O. (2015). La participación de las familias en la escuela: Factores clave. *Revista de la Asociación de Sociología de la Educación RASE*, 8(1), 57-70.
- Luengo, J., eta Luzón, A. (2001). El proceso de transformación de la familia tradicional y sus implicaciones educativas. *Investigación en la Escuela*, 44, 55-68.
- Maestre, A. B. (2009). Familia y escuela. Los pilares de la educación. *Revista Digital Innovación y Experiencias Educativas*, 14, 1-11.
- Mariñas, M., eta Rodríguez E. (1999). Relación familia-centro escolar: Participación. *Revista Galego-Portuguesa de Psicoloxía e Educación*, 4(3), 55-67.
- Medina-Rubio, R. (1990). *La educación personalizada de la familia*. Madrid: Rialp.
- Meil, G. (1999). *La postmodernización de la familia española*. Madrid: Acento Editorial.
- Navarro, M. J. (1999). Análisis de distintas estrategias para la participación de los padres en la escuela. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 3(1), 1-15.
- Oller, M. (2007). Las familias también cuentan. M. Anton (Coord.), *Planificar la etapa 0-6: Compromiso de sus agentes y práctica cotidiana* (35-55). Barcelona: GRAÓ.
- Pérez De Guzmán, M. V. (2002). Familia y escuela: ¿Dos mundos inconexos?. *Cuestiones Pedagógicas: Revista de Ciencias de la Educación*, 16, 205-220.



- Pérez-Díaz, V., Chulia, E., eta Valiente, C. (2000). *La familia española en el año 2000*. Madrid: Fundación Argentario.
- Pindado, F. (2000). *La participación ciudadana en la vida de las ciudades*. Barcelona: Ediciones del Serbal.
- Pineault, C. (2001). El desarrollo de la competencia de los padres. A. Gervilla-Castillo (Koord.), *Familia y Educación*. Grupo de investigación Educación infantil y Formación de Educadores, Universidad de Andalucía España.
- Ríos-González, J. A. (1986). *Familia y centro educativo*. Madrid: PPC.
- Sánchez-Velasco, J. M. (1990). Familia y escuela. *Revista ALMINAR*, 14.
- Santos-Guerra, M. A. (1999). *El crisol de la participación: Estudio sobre la participación en consejos escolares de centros*. Archidona: Aljibe.
- Tuesca, V., Girón, M., eta Navarro, L. (2012). Estrategia educativa para la participación de los padres en compromisos escolares. *Escenarios*, 10(2), 119-127.
- Valdivia, C. (2008). La familia: Concepto, cambios y nuevos modelos. *Revista La Revue du REDIF*, 2(1), 15-22.
- Viladrich, P. J. (1994). La familia soberana. *Revista Ius Canonicum*, 68, 427-440.



## ERANSKINAK

### I. Eranskina: Galdetegiarekin batera bidalitako mezua.

Familia agurgarria,

Zuriñe Andrés Arizmendi dut izena, eta gustatuko litzaidake komunikatzea nire "Gradu Amaierako Lanean" ikerketa bat egiten ari naizela gurasoen parte-hartzea eskolan zein den jakiteko. Horretarako, zuen parte-hartzea behar dut.

Ikerketa aurrera eramateko galdetegi bat prestatu dut. Garrantzitsua da jakitea galdetegiaren erantzunak guztiz anonimoak direla, eta bertan ateratako emaitzak soilik ikerketa honetan erabiliko direla. Erantzutea erabakitzen baduzue, eskatzen dizuet erabateko zintotasunarekin egitea, emaitzak egiazkoak izan daitezela. Galdetegia eman dezakezue, bai sarreretan edo irteeretan gelako tutoreari, bai zuen seme-alaben bitartez.

Eskerrik asko.

Querida familia,

Mi nombre es Zuriñe Andrés Arizmendi y quería comunicaros que en mi "Trabajo de Fin de Grado" estoy realizando un estudio sobre la participación de las familias en la escuela. Para ello, me gustaría contar con su colaboración.

Para llevar a cabo el estudio he ejecutado un cuestionario. Es importante que sepan que las respuestas del cuestionario son completamente anónimas y los datos que salgan únicamente se utilizaran para esta investigación. Si deciden responderlo les pido que sea con total sinceridad, para que los resultados sean verdaderos. El cuestionario pueden entregarlo a la tutora bien en las entradas o salidas, o bien mediante sus hij@s.

Gracias.

## GALDETEGIA / CUESTIONARIO

\*Obligatorio

1. Nork betetzen du galdetegia? / ¿Quién realiza el cuestionario? \*

Marca solo un óvalo.

- AMA/MADRE  
 AITA/PADRE  
 BESTE BAT/OTRO

2. "Beste bat" erantzutekotan, zehaztu dezakezu nor zaren? / En caso de contestar "otro", puede especificar quien?

3. Egun lan egiten duzu? / ¿Trabaja actualmente? \*

Marca solo un óvalo.

- BAI/SI  
 EZ/NO

4. Zailtasunen bat daukazu lana eta zure seme-alabaren eskola-bizitza uztartzeko? / ¿Tiene dificultad para compaginar el trabajo con la vida escolar de su hij@? \*

Marca solo un óvalo.

- BAI/SI  
 EZ/NO

5. Erantzuna baiezkoa izatekotan, zein da arrazoia? / En caso de que la respuesta sea afirmativa, ¿Cuál es el motivo?

Marca solo un óvalo.

- ORDUTEGI DESBERDINA/HORARIO DIFERENTE  
 ORDU ASKO LAN EGITEA/TRABAJAR MUCHAS HORAS  
 BESTE BAT/OTRO

6. Zure seme-alabaren eskolarekiko erlaziorik daukazu? / ¿Tiene relación con la escuela de su hijo? \*

Marca solo un óvalo.

- BAI/SI  
 EZ/NO

**7. Nola parte hartzen duzu? / ¿De que manera participa? \***

*Selecciona todos los que correspondan.*

- GURASO ELKARTEA/A.M.P.A.
- ESKOLA KONTSEILUA/CONSEJO ESCOLAR
- ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK/ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES
- TXANGOETAN PARTE HARTZEN DUT/PARTICIPO EN EXCURSIONES
- TALDEKO BILERAK/REUNIONES GRUPALES
- BANAKAKO BILERAK/REUNIONES INDIVIDUALES
- TAILERRAK, FESTAK ETA OSPAKIZUNAK/TALLERES, FIESTAS Y CELEBRACIONES

**8. Uste duzu garrantzitsua dela familiaren eta eskolaren arteko harremana egotea? / ¿Cree que es importante que exista relación entre familia y escuela? \***

*Marca solo un óvalo.*

- BAI/SI
- EZ/NO

**9. Zergatik uste duzu garrantzitsua dela? / ¿Por qué cree que es importante? \***

**10. Uste duzu familiek parte hartze handiagoa izan beharko luketela? / ¿Cree que las familias deberían participar más? \***

*Marca solo un óvalo.*

- BAI/SI
- EZ/NO

**11. Eskolak proposatzen dituen jardueretan parte-hartze aktiboa duzu? / ¿Participa activamente en las actividades que propone la escuela? \***

*Marca solo un óvalo.*

- BAI/SI
- EZ/NO

**12. Eskolak errazten du familien parte-hartzea? / ¿Facilita la escuela que las familias participen? \***

*Marca solo un óvalo.*

- BAI/SI
- EZ/NO

13. Zein motatako oztopoak edo erraztasunak aurkitzen dituzu parte hartzeko orduan? Aipatu batzuk. / ¿Qué obstáculos o facilidades encuentra a la hora de participar? Nombra algunos.\*

14. Informazioa zentrotik jasotzen duzu? / ¿Recibe habitualmente información del centro? \*

*Marca solo un óvalo.*

BAI/SI

EZ/NO

15. Zein iturritik jasotzen duzu informazioa? / ¿Por qué medio le llega la información? \*

16. Eskolak zure iritzia kontuan hartzen du erabakiak hartu behar direnean? / ¿La escuela tiene en cuenta su opinión a la hora de tomar decisiones? \*

*Marca solo un óvalo.*

BAI/SI

EZ/NO

17. Erantzuna ezezkoa izatekotan, zer hobetu daiteke eskolak zure iritzia kontuan hartzeko? / En caso de que la respuesta sea negativa, ¿Que se puede cambiar para que la escuela tenga en cuenta su opinión?

18. Nola plazaratu dezakezu zure iritzia eskolak kontuan hartzeko? / ¿Cómo puede dar su idea para que la escuela la tenga en cuenta? \*